

IKASLEEN TXOKOA - Langile ikastola

III/ ELKARRIZKETA

Maria Rosario Peña

Australian barrena ibili den hernaniarra



Sexua gaztaroan /II



Feminismoa /IV

Ane Etxaniz. DBH 3. maila.

IPUINA /IV

'Herriko misterioa'

Ane Estarloa Goia. DBH 1. maila.



EGILEEN ARGAZKIA /IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

LANGILE IKASTOLA

Sexua gaztaroan

Gauzak izugarri aldatzen ari dira. Gizartea aldatzen ari da eta sexualitatea ere bai. Aurreko belaunaldikoen aldean, gaur egungo gazteen sexualitatea asko aurreratu da: lehenago hasten dira beren sexualitatea praktikatzeko, jolas sexual gehiago ezagutzen, sarriago egiten... sexualitatea askeagoa da. Sexua ongintzarako, poztasunerako eta plazererako bidea da, emozio eta maitasun eragile. Sexua bizitzeko gogoari lotuta dago. Sexua bizitzaren alde egiten da. Horregatik, zenbait gazteen kezka argitzen saiatuko gara artikulu honetan

Lehenengo aldia

Neska-mutil guztien galderetako bat ondorengo hau da: "noiz izango naiz mutil edo neska batekin oheratzeko haundi?" Horrek ez dauka erantzun zehatzik. Emakume edo gizon bakoitzak bere kabuz aurkitu behar du erantzuna, gorpuzkerak ez baitu garrantzi handirik arlo honetan.



Pertsona guztiek, behin heldutasun sexualera iritsita, erlazioak eduki ditzakete.

Honen harira, bada zentzugabeko teoria bat lehenengo aldiaz: neskak emakume bihurtzen omen dira birjinitatea galtzen den unean, edo amodioa egitean.

Gure iritziz, ideia hori neskak edozein mutilekin ez lotzeko sortua da.

Zertan antzematen da orgasmo bat


Puntu gorenera iritsi baino lehen, eszitazioa gehitzen da. Arnasa hartzea azkarragoa da eta horrekin batera bihotz taupadak ere, gorpuzka ureztatuagoa egoten da, titi buruak kozkortuta, azala arroxaka bihurtzen da, izerditzeko hasten da... puntu batera iristean, minutu batzutan oso kitzikatua sentitzen da, orgasmoa izan baino lehen.

«Izan ere, gaztaroan nork ez du pentsatzen sexuari buruz? Orain lehen baino informazio gehiago daukagula eta ez dago hain gaizki ikusita; beraz, parteka eta goza dezagun!»

'G puntua'

G puntua, Ernest Graefenberg ginekologo alemaniarrek abizenaren lehen letra hartu eta izen hori eman zion eszitazio genital honi. Puntu hau baginaren barruan presio izugarri sentikorra den gune bat da. Gune hori baginaren aurreko paretan dago, sarreratik bost zentimetro ingurura. Egoki estimulatuz gero, G puntua dilatatu eta orgasmoa gertatzen da emakume askoren gan.

Zenbait adituk diotenez, bi gune gutxienez badira eszitazio-eraman dutenak: klitoria eta G puntua. Klitoria erraz aurkitu dezakegu emakumeok, eta harekin goza dezakegu. G puntua, berriz, zailagoa da aurkitzen. Mutil lagunaren edo gizonaren laguntza ezinbestekoa da.



Baina usteak erdiak ustel gertatu dira, ez baitute punturik aurkitu. Emakume mediku eta iker-tzaile asko saiatu dira "G puntua" delako hori aurkitzen, baina alferrik. Ez dute aurkitu ez plazerrik, ez kitzikapenik, ez orgasmorik. Are gehiago, ekinaren ekinaz, ohartu dira baginako pareta bentrala estimulatuz, benetan estimulatzen dena emakumearen uretra dela, bertatik pasatzen direlako klitoriko sentimen adarrak. Gainera, berez, emakume gehienetan uretraren estimulazioak ez du orgasmorik eragiten.

Bibragailuak

Emakumeek orgasmoa lor dezaketeko gizonaren zintzilikario estimatuaren beharrik gabe. Bagin

nan bere ezaugarri preziatuaren forma duen zerbait sartzen dute: bibragailu bat, zakilaren itxurako tramankuluren bat pila bidez mugitzen dena. Beste batzuetan, pepinilo handi bat, azenario eder bat edo platano bat sartu eta orgasmora iritsi arte mugituko dute.

Mutilentzako, aldiz, zakilaren behealdean eraztun forma duen tramankulu bat jartzen dute. Eraztunak duen botoi bat zapaldu eta dardarka hasten da denbora batez, orgasmora iritsi arte.

Izan ere gaztaroan nork ez du pentsatzen sexuari buruz? Orain lehen baino informazio gehiago daukagula eta ez dago hain gaizki ikusita; beraz, Parteka eta goza dezagun! ||



ikasle txokoa

ikasleen txokoa

M^a ROSARIO PEÑA - AUSTRALIAN BARRENA IBILI DEN HERNANIARRA

«Australiako Gobernuak barkamena eskatu zien otsailaren 13an aborigenei, izugarria izan zen»

Rosario Peña Australiara joandakoa da, Sidney eta Adelaide bezalako hirietan ibilia da eta bertako euskal-etxeetako jende ugari ezagutu du. Horrez gain, Australiako kostalde eta barnealdean ere egon da. Rosario Hernaniarra da, eta bidaiazalea da, guztiz.



Adelaide hiria.

Elkarrizketatzaileak. -Nor zaitugu eta nongoa zara?

M^a Rosario: Maria Rosario Peña Goñi naiz, hernaniarra naiz eta Kale Nagusian bizi naiz. Eta jada zahar xamarra naiz...

Galdetu beharrik ez dago, baina, bidaiazalea al zara?

Bai, oso zalea naiz.

Eta Australiara joatea, zergatik erabaki zenuen?

Nik arazo batzuk izan nituela suertatu zen, nire anaia gaixo jarri zen eta hil egin zen, lan bat nuen eta galdu egin nuen... Australian lagun bat dut, Donostian bizi izan dena urte dextentz, baina Australian jaiotakoa da, eta orain dela bi urte Australiara joan zen. Karabana batean bidaiatzen dabil, beraz, pentsatu nuen bera bisitatzera joateko ordua iritsi zela. Horrela, joan nintzen eta hiru hilabete pasa nituen han.

Australiako zein aldetan ibili zinen?

Gehien bat ekialdean egon naiz, mendebaldean jende gutxi bizi da eta.

Sidney eta inguru horretan?

Bai, kostaldean ibili naiz, eta

basamortuan ere bai, hor barnealdean... Sidney eta Adelaide hirietan... eta gero Townsville eta Melbournen ibilita nago, hara joan ziren Bizkaitar batzuk, Townsvillera (Queensland estatuan).

Nolakoa da bertako orografia?

Mendi gutxi daude, eta itsasak dena inguratzen du... Badakizue zer den Billabong bat? Marka bategatik entzuna izango duzue... Bada, hoiek itsasadar batzuk bezalakoak dira, itsasora iritsi aurretik

«Oraindik euskaldun asko dago Australian, 1950 inguruan joanak asko, azukre-kainabera sorotara lanera»

kurba okertuak eta horrelakoak eginez... ba, horiek dira Billabong-ak. Bestalde, begetazio izugarria dago, ugari-ugaria da... Eta gero basamortua ere badago, mendiak ere badira, baina oso gutxi.

Euskaldun asko al dago Australian?

Bai, oraindik dextente daude, eta joan zirenetik han gelditu direnak dira. Townsvillako euskal-etxean ehun pertsona inguru daude, bere seme-alabekin. Baina hirietan ere badaude. Sidney-n ere

ezagutu nituen, ez dakit zenbat izango ziren. Ez ziren asko, baina kontuan eduki behar da Australian ez dela jende asko bizi... Eta Hernanikoak ere ikusi nituen; bat Melbournen bizi da. Beste batzuk, aspaldi joandakoak dira, 1950 urte inguruan, bertan azukre-kainabera behar zutelako. Han kainaberaz beteriko soro izugarriak daude. Ez dago mendi askorik, eta kilometroak eta kilometroak egin ditzakezu etxerik ikusi gabe, dena soroz beteta, han lursail izugarriak daude. Bada, han kainabera moztera joan ziren. Orain uste dut kainabera jadanik makinekin mozten dutela. Hara joan ziren gehienak bizkaitarrak ziren eta han gelditu ziren.

Eta zein kainabera da?

Azukrea?

Bai, azukrearena da. Bai eta oraindik ere produkzio handia daukate, baina makinekin egin dute, bai.

Asko kostatu al zitzaient bertaratzea?

Nere ustez bai. Bai, zeren gainera, beraiek ez zekiten ingelesez, eta... askok oraindik ez dute ikasi. Hala eta guztiz ere, nire lagunaren aita albaitaria zen eta Bizkaitan joana; ez zekien ingelesez. Orduan egin zuen lana izan zan, Australiako Gobernuak aginduta, honera etorri, Bizkaitara, jendea hara eramateko. Kainabera mozten ere lan egin zuen.

Jurgi, Langileko ikaslea izandakoaren bikotea ere, bertakoa da, ezta?

Bai, bai, australiarra da eta eus-

keraz bastante ondo hitz egiten du.

Ezagutu al zenuen hango jatorrizko biztanlerik, aborigenarik?

Beno, hori da nere buruan gelditu dan galdera... Nik ingelesa ez dakit asko, eta gainera, han ingelesa zailagoa da ulertzeko. Orduan, posibilitatea izandu nuen, gidari bat izandu genuen basamortu aldean eta berak asko zekien hortaz. Baina nik ez nion asko ulertzen eta han irakurri detena dakit, periodikotan eta horrela. Baina badaukat hemen liburu bat hortaz pixka bat gehiago jakiteko. Beste alde batetik, zera esango nizuke: lehenbizi hango jendeak, jende zuriak, anglosajoiak, ez dituela asko maite.

Baina gauza ez da hain sinplea. Ingelesak XIX. mendean joan ziren hara, Australiara, eta egin zutena egin zuten, esklabo bezala hartu angoak eta abar. Gainera, kartzeletako jendea joan zen, ingelesek ez zeukaten lekurik beraien kartzeletan eta kartzeletako jendea eraman zuten Australiara, beno.. desastrea izan zen. Orain gertatzen dena da, Gobernuak ez dakiela nola egin beraiek integratzeko. Diru pila bat ematen die, baina klaro, diru pila horrekin batzuk, ez denak, baina aborigen batzuk egiten dutena da errez bizi: asko edan, ez daukate lanik eta horrela... Bestetikan, Jatorrizko australiarrak ez direnak, anglosajoiak, inpuesto pila bat pagatzen dute aborigenentzako. Eta, beste alde batetik, aborigenek izugarri kultura konplexua daukate. Zeren beraiek ez dute behin ere etxerik izan, ez dute dirua irabazi nahi kartilla batean izateko eta gastatzeko. Beraien kultura oso naturarekin lotuta zegoen, Australia barruan egiten zituzten bidaiak. Adibidez... udaran itsaso aldera joaten ziren, eta udazkenean beste leku batera joaten ziren. Leku bakoitzean jateko behar zutena lortzen zuten. Beren sinismenak ere oso diferenteak dira gurekin alderatuz.

Hitz egin nuen gidari honekin, berak esaten zuen eskolaratzea oso zaila zala aborigenentzako. Arazoa oso zaila da, mozkor asko ikusten dira-eta,

penagarria da. Beste alde batetik, integrazioko gauzak ikusten dira, adibidez: beraiek bere gorputzetan pintura ematen zuten, indioak bezala, ezta? Eta orain, hemen bezala egiten ikasi dute, kuadroetan. Proiektu asko dago, artista asko. Gainera, arte hori oso ondo pagatuta dago. Eta orain gertatu dena zera da: hango Gobernu laborista da... Gobernu horrek barkamena eskatu zuen, publikoki, Parlamentuak. Zeren 1950. urtean jende zuriak umeak harrapatzen zituen, aborigenen herrietara joaten ziren eta umeak harrapatzen zituzten eta gurasoak umerik gabe uzten zituzten. Pentsatzen zuten beraiek hezi egingo zituztela eta ez dakit zer eta badakit zer. Erlijiosoak izandu ziren, erlijio desberdinetakoak...

Bere erara hezitzeko?

Bai, badaude asko oraindik ez dituztenak bere gurasoak ezagutu. Eta orduan, Gobernuak otsailaren 13an barkamena eskatu zien, eta izugarria izan du zen, nik telebistan ikusi nuen, gustatuko zitzaidan hura han bertan ikustea, baina kanpin batean nengoen eta telebistan ikusi nuen.

Eta nabaritzen zaie ezaugarri fisiko edo kulturalik?

Bai, oso diferenteak dira, izugarri diferenteak.

Ez dira gu bezalakoak?

Ez, beltzak dira. Irakurri detenez, horiek Afrikatikan datozte, Papua Gineatikan, orain dala ba... berrogei mila urte pasa ziren Australiara. Orduan, beltzak dira, sudurra oso irekia, kopeta atzekaldera, masaila...

Argazkirik ez daukat, baina ekarri nuen egun horretako aldizkaria. Hau, adibidez, ume bat da, polita, ezta? Barkamena eskatu zuten eguneko aldizkaria da. Hau Melbournen izandu zan eta ez dakit etorriko diran argazkiak... baina esaten dizuten bezala, beltzak, sudurra oso handia...

Eta aborigenentzako ze esan nahi izan du barkamena eta?

Gehienentzako oso ona izan da. orain beste arazo bat daukate. Aborigenek barkamena onartzen dute, baina Gobernuak pagatu egin behar die. Besteek berriz, esaten dute jadanik bastante pagatzen ari direla... ||



Australiako aborigena.

29

zenbakia

ikasleen txokoa

Herriko misterioa

ORAIN dela 18 urte, Donostiak 500 kilometrotara herri misterioa bat zegoen. Nola izena zuen herriak? Bertan nor bizi zen? Galdera guzti horien erantzunak inortxok ere ez zekizkien. Denek nahi zuten erantzuna argitu.

Herriaren ez zegoen farolarik, dena ilun zegoen, izarrek dizdira egiten zuten eta haizearen hotsa besterik ez zen entzuten.

Egun batean, Josu izeneko mutil gazte batek herri hartako misterioa jakin nahi izan zuen eta goizeko hiruretan bere etxetik atera zen. Herria sartu eta ez zuen pertsona bat berá ere ikusi. Etxe baten ondoan ibai bat ikusi zuen eta bertara urreratu zuen.

Bat-batean ibaian argi bat azaldu zen, baina ez zion garrantzi handirik eman eta nekatuta zegoenez, etxera abiatu zen.

Egunero gauza berbera egiten hasi zen: goizean herri hartara joan eta pare bat ordu pasa eta gero etxera abiatzen zen. Baina egun batean goizeko hiruretan joan zen berriro ere, eta ibai hartara hurbildu zenean beso bat ikusi zuen ertz batean. Ikaratu egin zen, noski!

Zer zegoen? Nola izena zuen? Oso urduri jarri zen, dardarka! Harrituta! Ez zekien zer egin eta orduan...

Alajainnnaaaaaaa! Emakume eder bat zen!

-Nor zara? Zer ari zara hemen? Arasa har al dezakezu uretan? Ondo al zaude? -galdetu zion

emakumeari.

-Jesus, mutiko, lasaitu adi! Ez al dituzu galdera gehiago egiteko, ala?

-Barkatu! Nor zara? Zer ari zara hemen? -galdetu zuen Josuk.

-Lamia bat naiz, Sara izena dut eta bertan bizi naiz. -Josuk ez zekien zer egin eta korrika biziaren etxera abiatu zen.

Hurrengo egunean, berriz ere herri hartara joan zen, ibaira hurbildu eta lamia eder hura agertu zitzaion. Lagunak egin ziren azkenean, baina halako batean beste norbait herria sartu zen.

Orduan, Sara eta Josu ezkutatu egin ziren. Herria sartu zen gizaki hark, ordea, ikusi egin zituen, baina lamia eta mutil gaztea ez ziren konturatu ere egin.

Goiz aldean, hamarrek aldera, Josuk Sara agertu eta bere herria bueltatu zuen.

Beraien azken hitzak hauek izan ziren:

-Sara, asko pozten naiz zu ezagutzeaz, baina ezin izango dugu berriz ere elkar ikusi!

-Zergatik? -esan zuen Sarak.

-Ezin dudalako egunero zuregan etorri. Nik ere nire egin beharrak ditut! Eta gainera, norbait konturatzen bada egunero bisitan etortzen naizela... (Ez zuen espero herri misterioa sartu zen gizaki hori bere herriko izango zenik).

Bere herria sartu zenean denek begiratzen zioten. Josu harrituta zegoen.

-Zergatik begiratzen didate? -galdetzen zion bere buruari behin eta berriz.

Oso erraza zen! Gizakiak Sara Josurekin ikusi zenean, herriko guztiei kontatu zielako.

Handik hiru urtera, liburu edea guztietan liburu berri bat azaldu zen; izenburua "lamia ederra" zuen.

Josu egun batean, liburu edea dera abiatu zen eta bertan liburu hori aurkitu zuen. Aulki batean patxadaz eseri eta irakurtzen hasi zen. Berehalak konturatu zen berari pasa zitzaion guztia, hau da, lamia ezagutu, egunero bisitan joan... hori guztia zehatz zehatz idatzita zegoela bertan. Geroxeago, alegia, liburuak irakurtzen bukatu eta gero, kalera atera zen.

Oharu gabe bi emakumeren hizketaldia entzun zuen eta orduantxe konturatu zen herri misterioa sartu zenak idatzi zuela liburuak. Mutila pentsatzen jarri zen unetxo batean eta gizaki hori egunero berá espiatzen zela ondorioztatu zuen.

Egun hartan Josu lamiarengana joan zen dena kontatzera. Guztia kontatzen bukatu zenean, Sarak gaztetxoari musu bat eman zion. Ondoren Sarak ea elkarrekin bizi nahi zuten galdetu zion. Josuk buruari eragin gabe bajietz erantzun zion eta halaxe egin zuten.

Egun hartatik aurrera herri misterioa beráiek biak bakarrik bizi izan ziren. Gaur egun, herria Lamijosu izenez ezagutzen da.

Ane Estarloo Goia
DBH 1. maila

Feminismoa

HASTEKO, argi eta garbi utzi nahi dut hembraismoa matxismoaren aurkako hitza dela, non esaten den, emakumea gizona baino hobea dela edo bere gainetik dagoela. Feminismoak, ordea, emakumea gizonarekiko defenditzen du, berdintasuna errebindikatu.

Kontuan izan behar da feminismoa eta hembraismoa ez direla sinonimoak; hala ere, gaur egungo gizarteak ez ditu bi kontzeptu hauek desberdintzen. Hauxe azpimarratu nahiko nuke, jende askorentzat hembraismo hitza ezezaguna baita, eta ez pertsonentzat bakarrik, komunikabideentzat ere bai; eta hori larriagoa da. Hiztegi bat baino gehiagotan ez da hitz hau agertzen, interneteko web orri batzuetan ez dituzte feminismoa eta hembraismoa bereizten... eta urrutiago joan gabe, oraintxe idatzen ari naizen WORD orriak hembraismo hitza gorri azpimarratu du, ezezaguna dela adieraziz.

Gaur egun, herrialde garatuetan ez dute emakumea lehen bezainbeste gutxiesten. Onartuagoak daude, lanean edo edozein tokitan geroz eta integratuagoak. Baina esan duzun bezala, hau herrialde garatuetan bakarrik gertatzen da... Toki askotan, emakumeek zapiak eraman behar dituzte aurpegia estaltzeko, 'burkak' jantzi... leku hauetan, gizarteak izugarri matxista da eta.

Noski, orain dela urte batzuk hemen ere emakumeek oztopo handiak izan zituzten. Ez zuten gizonenekin lan berdina eskuratzeko aukerarik, askoz ere gutxiago ordaintzen zitzaion, eta kasu askotan lan gehiago eginaz. Etxean egon beharra zuten, garbiketa lanak egiten, janaria sukaldatzen, umeak zaintzen... senarra taberna lagunekin zegoen bitartean.

Gainera, matxistak ez dira gizona bakarrik. Badaude gizarteak horrela tratatzen dituzten emakumeak, eta justizia aldarrikatzen duten beste emakumeak salatzen dituzte. Nik ez diet errua botatzen, horrela hezi baitituzte betidanik; baina nolana ere, ez zait egokia iruditzen, aita eta semea telebista ikusten ari diren bitartean ama eta alaba platerak garbitzen ari zirela onartzea. Hori jarrera matxista baita haien aldetik.

Ni, matxismoaren aurka nago, gizonen emakumezkoaren gainetik dagoela ez baitzait buruan sartu ere egiten. Ez al dira emakumeak gizona bezain azkarak? Ez al dute gauza berak egiteko ahalmenik? Orduan zergatik dira gizona hobetoagoak? Bi hanka tartean zintzilikarioa dutelako? Naturak, jainkoak edo denadelaok bi sexu sortu bazituen, denak berdina izateko

zen, eta ez bata bestearen gainean ezartzeko.

Noiztik da mundua horrelakoa? Ziurrenik historiaurretik dator. Gizona ehizara joaten ziren, eta bitartean emakumeak umeak zaintzen, buztinezko ontziak egiten, janaria prestatzen... ziharduten. Gero, ehizetik bueltatzen, gizonen ondo deskantsatu ahal izateko. Ongi, egia da naturak indar eta muskulu gehiagorekin hornitu dituela gizona (orokorrean). Baina emakume bat baino gehiagok gizon askok baino punteria hobea zuela esango nuke. Seguruaski, lana antzinatean banatu izan balute, emakumeek ez lukete hainbeste urtetan jandako diskriminazioa sufritu behariko.

Biblian, adibidez, idatzi zen garaiako matxismoa argi ikus daiteke:

-“(...) Emakumea, mutikoa izaten bada, zappi egunez kutsaturik geldituko da... Baina neskatza izaten bada, bi astez geldituko da kutsaturik (...)” LEBITARRENA 2 & 5

-“(...) Baina nahi nuke jakitea, gizon ororen buru kristo dela, emakumearen buru, berriz, gizona... Gizona, bada, ez du estali behar burua, jainkoaren irudi eta berorren aintzaren isla baita; emakumea, berriz, gizonaren aintzaren isla da, ez baitator gizona emakumeagandik, emakumea gizonarengandik bajizik (...)” KORINTOARREI 11: 3,7,8 & 9

Bibliatik ateratako testu hauek garbiki gutxiesten dute emakumea. Gainera, honelako astakeriak esan dituen jendea bada:

-“(...) Eva da, tentagarria, emakume guztiak bezala beretaz gorde behar gara... umeak edukitzeaz aparte, ez dakit zer beste erabilgarritasun duen.”

-“Emakumeak ez dira inola hezi edo edukatu behar. Egia esan, bananduta egon behar lukete, gizon santuen ustekabeko erakzioen kausa besterik ez baitira.” Hiponako San Agustin, Elizako aita eta filosofoa.

Gizon asko emakumeak duten zortiaz kezkatzen dira, haiek lanean dauden bitartean, emazteak etxean lasai-lasai geratzen direlako. Hala ere oker dardela uste dut. Haiek etxetik kanpo dauden bitartean, emakumeak enkarituak egin, etxea garbitu, umeak zaintu, arropa lixatu, garbitu eta zabaldu... egiten dute.

Badaude, ordea, etxeak, non gauza hauek gertatzen ez diren. Zorionez, gizon eta emakumeen artean berdintasuna dago. Biek lan egiten dute, gizona arraindegira edo urdaitegira joatea normala da, etxe-ko lanak biek egiten dituzte, seme-alabak biek zaintzen... egiten dute.

Hemendik gutxira, gizarteak emakumeak eta gizona eskubide berak dituztela ulertzea eta berdintasuna egotea espero dut.

Ane Etxaniz
DBH 3-A

Egileak: Langile ikastolako ikasleak

